

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN GOI-KARGU
IZENDATURIKO PERTSONENTZAKO
JOKABIDE-GIDAK**



Edukien aurkibidea

1.	Sarrera.....	3
2.	Jokaera-giden helburua eta aplikazio-eremua.....	5
3.	Jokabide-gidak funtsatzen dituzten printzipio etikoak, gobernamendu onarenak eta herritarrekiko harremanenak	7
4.	Jokabide-gida: nola gauzatzen diren printzipio etikoak.....	9
5.	Jokabide-gida: nola gauzatzen diren gobernamendu onaren printzipioak	17
6.	Jokabide-gida: nola gauzatzen diren herritarrekiko harremanetarako printzipioak	27
7.	Jokabide-gidak gizartekotzea eta zabaltzea.....	32
I. eranskina:	Glosarioa.....	33



1. Sarrera

Badira hamarkada batzuk demokrazia aurreratuak apustu irmoa egiten ari direla balioak erreibindikatzeko, bai erakunde publikoetan eta bai politikan, zuzendaritza publikoan nahiz enplegatu publikoen jarduteko moduan, eta horrela gobernantza-eredu aurreratuak eratzen.

Era berean, XX. mendearen amaieraz eta XXI. mendearen hasieraz geroztik, funtzio publikoaren arloan ere etika publikoa garatzeko politika bat ari da bultzatzen ELGA, eta nabarmendu du beharrezkoa dela laguntza-mekanismoen sistema sendo bat ezartzea, helburu hauetarako:

- Kargu publikoentzako funtsezko balioak eta estandar etikoak eskaintzeko eta karguok haietan inplikatzeko, horrela dilema etikoen konponbidean lerro argiak eta aholkularitza ematearren.
- Estandar etikoak sustatzeko, interes-gatazkak eragin ditzaketen egoerak prebenitzeko eta goi-mailako jokabide-estandarrak saritzeko garapen profesionalaren bidez.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015-2019 urteetako Gobernamendu Planean berean, bazen eboluziorako konpromiso bat, administrazio modernoago eta arduratsuago bat lortzeko, herritarrengandik hurbilago egongo dena, eta, horretarako, gardentasun, gobernamendu on eta gobernu irekiaren alde egiten zen, lehentasunezko jarduera-helburu legez harturik hiru printzipiook Bizkaia hobeko baterako bidean.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat ekimen abiarazi zituen legealdi horretan, hala nola Gardentasunari buruzko Foru Araua, Urteko Kontratazio Plana, zerbitzu-gutunak, prozesuen digitalizazioa eta Urteko Araugintza Plana, besteak beste, eta denak ere lagungarri bermatzeko foru-kargudunek zintzo, gardentasunez, inpartzialtasunez eta arduraz jardungo dutela beren zereginetan.

Testuinguru horretan, 2018ko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Araua onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzkoa, helburutzat harturik kargu publikodun aritu bitartean sor daitezkeen interes-gatazkako eta bateriaezintasuneko egoerak arautzea eta kargu publikoei tresnak ematea gatazka edo bateriaezintasuna garaiz detektatu ahal izateko eta halako egoera batean zer prozedurari jarraitu behar dioten jakiteko.

Foru-arau horrek, zehazki, printzipio etiko batzuk definitzen ditu, gobernamendu onari eta herritarrekiko harremanei buruzkoak, goi-karguen funtzioak betetzeko moduan orientabidea eskaintzeko. Horrez gainera, printzipiook gauzatzeko behar diren instrumentuak ere ematen



ditu, eta haietariko bat dira, hain zuzen ere, jokaera-gida hauek, Bizkaiko Foru Aldundiko eta foru-erakundeetako goi-karguentzat pentsatuak. Bai foru-arauak eta bai jokabide-gida hauek erakunde- eta gestio-esparrua osatzera datoz, eta xede bera dute Aldundiaren gobernamendu onari buruzko gobernantza-tresnek.

Jokabide-gidak tresna aproposa dira bermatzeko goi-karguek era zintzo, garden, inpartzial eta arduratsu batean jardungo dutela beren eginkizunetan, eta gobernamendu onaren kultura sortzea oinarritzat duen gobernantza-eredu baten aldeko apustua dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren uste sendo bat biltzen dute gidek: politika positiboaren balioa nabarmendu behar dela, Aldundiko goi-karguen eredugarritasunaren berme, horrela erakundearen irudia zaindu eta herritarrek harengana duten konfiantza indartzen baita, eta erantzuna ematen baitzaio lurraldearen egungo egoerari.



2. Jokaera-giden helburua eta aplikazio-eremua

Helburua:

Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko 2018ko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Araua onarturik, Bizkaiko Foru Aldundiak urrats bat egin zuen aurrera bermatzeko Aldundiko goi-karguek modu eredugarrian betetzen dituztela beren eginkizunak, interes orokorrari erantzunez.

Arau hori erronka berria da interes-gatazkei eta bateraezintasunei aurre egiteko orduan, eta halakoak garaiz antzemateko mekanismoak ematen ditu, gobernamendu onaren berme gisa. Besteak beste, foru-arauak printzipio etiko sorta bat definitzen du, gobernamendu onari eta herritarrekiko harremanei buruzkoa, goi-karguen funtzioak betetzeko moduan orientabidea eskaintzeko.

Arauan jasotako printzipioak garatzea da jokabide-gida hauen helburua, printzipiook prebentziozko ikuspegi batetik gauzatzea. Horrela, haien garrantziaz sentsibilizatu, eta hartzen diren konpromisoak betetzea erraztuko duten jarraibideak eta gomendioak ezarri nahi dira, Foru Aldundian eta foru-erakundeetan goi-kargu izendaturiko pertsonen jardunean estandar etikoak eta gobernamendu onari dagozkionak bermatzeko.

Azken batean, Aldundiko goi-karguen jokaera eta portaera bideratzea da gida hauen helburua.

Zehazki, honako **helburu nagusi hauek** dituzte gidok:

- Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko 5/2018 Foru Arauan ezarritako printzipio etikoak, gobernamendu onekoak eta herritarrekiko harremanekoak garatu eta zehaztea, goi-kargu foralen jokabideak eta portaerak gidatuko dituztenak.
- Goi-kargu foralek beren eginkizunetan era zintzo, garden, inpartzial eta arduratsuan jardun dezatela sustatzea.
- Sentsibilizatzea eta erakustea, eta hartutako konpromisoak betetzea errazten duten jarraibideak ezartzea, haien jardunean estandar etikoak bermatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-erakundeetan oro har gobernamendu onaren kultura sustatzen aurrera egitea.



Jokaera-giden garrantzia

Jokaera-gidek goi-kargu foralen egiteko publikoa behar bezala betetzen dela bermatzen laguntzen dute, haien jokaera eta erantzukizunak betetzeko modua bideratzen baitute, betiere interes orokorraren eta herritarren ongizatearen arabera, erakundearen irudia babesten lagunduz.

Horrez gainera, erakundeenganako konfiantza-sentimendua sustatzen duten herritarrengan, honako arrazoi hauengatik:

- *Goi-kargu foralentsat lehenetsun bihurtzen dute beren kargu publikoetan jardutean interes orokorrak zaintzea bermatu eta defendatu beharra.*
- *Goi-kargu foralak gizartearentzat eredu izatea bermatzen dute.*
- *Foru-arauan definituriko printzipioak goi-kargu foralek hobeto eta zuzen ulertzen dituzten laguntzen dute, printzipiook ikuspegi pragmatikoz eta politikaren ikuspuntu positibo batez gauzatzeko aukera emanez.*

Aplikazio-eremua:

Goi-kargu direnentsat egin dira jokabide-gida hauek, bai eta sektore publikoko foru-erakundeetan zuzendaritza-ardura goreneko postuak dituzten gainerako foru-kargu publikoentzat ere.

Norentzat dira zehazki jokabide-gida hauek?

Honako kargu publiko foral hauen jarduna gidatu behar dute jokabide-gida hauek:



- Ahaldun Nagusia
- Foru-diputatuak
- Foru-administrazioko zuzendari nagusiak eta haiekin parekatutakoak, hala sorrera-arauan nola izendapen-egintzan
- Foru-erakundeetako zuzendari nagusiak
- Bere garaian kargu publiko foralen katalogoan sar litekeen beste edozein kargu.



3. Jokabide-gidak funtsatzen dituzten printzipio etikoak, gobernamendu onarenak eta herritarrekiko harremanenak

Gida hauetan, zenbait printzipio garatzen dira Bizkaiko Foru Aldundiko nahiz foru-erakundeetako goi-karguen jarduna gidatu behar dutenak, denak ere gobernamendu ona bermatzera bideratuak.

Hiru multzotan egituratzen dira printzipiook:


- **Printzipio etikoak**
- **Gobernamendu onaren printzipioak**
- **Herritarrekiko harremanetarako printzipioak**

Printzipio horiek ezartzen dute zertan oinarritu behar duten goi-kargu foralek beren egitekoak betetzean, eta haiei esker berma daiteke beren eginkizunetan era zintzo, garden, inpartzial eta arduratsuan jardungo dutela, horrela erakundearen irudia zaindu eta herritarrek harengana duten konfiantza indartzeko.

Datozen orrietan, zehatzago aurkezten da printzipio bakoitza, eta modu argigarri batean azaltzen da, orientabide eta prebentzio gisa, zer jokabide, jardunbide eta gidalerrok bermatzen duten printzipiootariko bakoitzean oinarrituriko jokaera bat, errazago bete daitezen, horrela, harturiko konpromisoak.



Printzipio etikoak, gobernamendu onaren printzipioak eta herritarretiko harremanetarako printzipioak





4. Jokabide-gida: nola gauzatzen diren printzipio etikoak

Printzipio etikoak

Honako printzipio hauek gutxienez gidatu behar dute goi-kargu publiko foralen jokabidea:



Eredugarritasuna:



Modu eredugarrian jardutea une oro, herritarrek erakundeetan konfiantza izan dezaten eta eredu izateko bakoitzak zuzentzen duen organo edo entitateko langileentzat.

Herritarren aurrean erakundearen irudia islatzen duen «ispilu» legez jarduten duelarik, goi-kargu foralak jokabide zintzo eta ereduzkoa izan behar du, eta beti saihestu behar du erakundearen irudiari kalterik txikiena egin diezaiokeen ekintza edo ez-egite oro, hau da, herritarrek erakundeengan duten konfiantza honda dezakeen edozer.

¿Zer esan nahi du modu eredugarri batean jarduteak?

- **Erakundearen legitimitatea** sendotzea norberaren jokaerarekin, kalte oro saihestea eta **norbere gain hartzea** balizko kalteen ondorioz etor daitezkeen **erantzukizunak**.



- Erreferente izatea, norberaren jokaeratik, bakoitzaren organizazioan lan egiten dutenentzat, lidergo etikoa erakutsiz eguneroko egitekoetan.
- Foru Aldundian eta goi-karguak lanean diharduten foru-erakundeetan, **giro etikoa** sustatzea intereseko taldeekiko tratuan, izan barnekoak (funtzionarioak, langileak...) zein kanpokoak (herritarrak, hornitzaileak, erakunde-ordezkariak, elkarteak...), behar den bezalako prestasun eta berdintasunez jokatzuz, eta berdin jardutea goi-karguaren funtzio publikoak direla-eta sortzen diren beste alderdi eta egoeretan ere.
- **Ez erabiltzea modu desegokian** karguagatik eskura dituen **ondasunak eta zerbitzuak**.

Zintzotasuna:



Zorrotza izatea etikari eta jokaera egokiari dagokienez, eta, bai eginkizun publikoetan bai egiteko instituzionalaz kanpoko alderdietan, koherente izatea zerbitzu publikoaren printzipioarekin, bai eta beste batzuekin ere: inpartzialtasun, zintzotasun-, gardentasun-, efikazia- eta legezketasun-printzipioekin, hain zuzen.

Goi-kargu foralek erabakitasunez jardungo dute eta portaera etiko eztabaida ezina izango dute beren funtzio publiko guztietan, bai eta erakundeaz haragoko beste alderdi batzuetan ere, baldin eta ordezkatzeko duten erakundearen irudiari eragiten badiote.

Zintzotasuna, goi-kargu forala eguneroko aipaturiko printzipioekiko koherentziaz jardutera bideratzen duen bertutea, beti izango da presente haren eginkizunetan, eta alde batera utziko ditu gida hauetan ezartzen diren printzipioei eustetik eta haiek sustatzetik bereiz dezaketen presioak.

Zer esan nahi du zintzotasunaren printzipioan oinarrituriko jokaera izateak?

- **Hartutako erabakiekin koherentea den jokabidea** izatea, jaramonik egin gabe erabakiak hartzeko prozesuan eragina izan dezakeen edozein presio interesatari.



- Beren egitekoetan, **ereduzko portaera etiko bat** oinarri dutela jardutea, gida hauetan definitutako printzipioak bermatzen direla zainduz.
- **Erantzukizunez jardutea bere funtzioak betetzean**, eta inola ere ez baliatzea erakundearen duten posizioa edozein abantaila edo onura lortzeko.

Inpartzialtasuna:



Irizpide independentea izatea beti, interes partikular orotatik urrun.

Jarduketa inpartzian oinarrituta hartuko dituzte goi-kargu foral guztiek beren erabakiak, irizpide independenteetan funtsatuta eta interes partikular orotatik urrun. Inpartzialtasuna, beraz, berme eztaba daezin eta nahitaezkoa da haien zeregin publikoa zuzen betetzeko.

Zer da portaera inpartziala?

- Beren funtzio publikoan betetzean **interes orokorra bete dadila** sustatzea beti.
- **Agindutako zereginak eta betebeharrak leialtasunez, zintzotasunez** eta behar besteko arduraz betetzea.
- **Interes partikular orotatik urrun dauden irizpide independenteetan oinarrituta jardun dadin** sustatzea foru-erakundearen prozesu guztietan (langileak izendatzean, kontratazioan, dirulaguntzak ematean, arauak aplikatzean, baliabideak erabiltzean...).



Objektibotasuna:



Inpartzialtasunez eta ekitatez hartzea erabakiak, erakundearen interes orokorrak errespetatuz, eta erakundeari berehala ematea erabakiak hartzeko orduan eragina izan dezakeen edozein interes-gatazkaren berri.

Beren funtzioak betetzean, interes orokorrak eskatzen duen neutraltasunaz jardungo dira goi-kargu foralak; batez ere, botere publikoek hartu beharreko erabakiei dagokienez.

Zer portaerak bermatzen du jokaera objektiboa?

- **Neutraltasunez jokatzea interes orokorraren alde**, eta erakundea jakitun jartzea interes-gatazkatzat jo daitekeen edozein jarduketaren aurrean.
- **Saihestea** arrazoizko zalantzak edo susmoak eragin ditzaketen objektibotasunik gabeko **jarduketa oro, onura zuzena edo zeharkakoa dakarkiena pertsona edo entitate** pribatu zein publiko jakin batzuei.
- **Erantzukizunez jardutea bere funtzioak betetzean**, eta inola ere ez baliatzea erakundearen duten posizioa edozein abantaila edo onura lortzeko.
- **Gardentasuna eta kontu-arrazoiak ematea etengabe balia daitezten** sustatzea, erabat zaintzeko horrela interes publikoa eta erakundearen irudia.

Erantzukizuna:



Beren erabaki eta ekintzen erantzule izatea.

Bere funtzioak betetzean, goi-kargu foral orok bere gain hartuko du bere jardueren eta erabakien erantzukizuna, bai eta zuzentzen duen erakundearena ere.

Zer esan nahi du erantzukizunaren printzipioak?

- Une oro **erantzutea norbere funtzioak betetzean harturiko erabaki eta eginiko ekintzengatik.**



- Prest egotea jakinarazteko **zer arrazoi objektibok bermatzen dituzten eginiko jarduketak** eta harturiko erabakiak.
- **Jokaera publiko akasgabe** batean oinarriturik egitea jarduketa publikoak.
- **Erakunde- eta arau-esparrua errespetatzea** funtzio publikoak betetzean.

Onestasuna eta interesik eza:



Interes publikoa betetzeko eta Bizkaiko herritarren interes orokorraren alde soilik lan egitea.

Interes publikoa eta, oro har, Bizkaiko herritarrena betetzeko bakarrik helburu harturik jardungo dute goi-karguek; beren adierazpenak egiazko izatea zainduko dute, eta koherentzia gordeko beren adierazpenen eta beren funtzioen ondorioz egiten dituzten egintzen artean.

Zer esan nahi du onestasunez eta interesik gabe jarduteak?

- Beren jardunaren **helburu nagusi bakarra izatea osorik betetzea interes publikoa eta Bizkaiko herritar guztien interesak.**
- **Jakinaren gainean jartzea erakundeak baldin eta interes-gatazkaren bat bada** edo itxuraz gatazka izan litekeen zerbait, beren buruak uki ditzakeena nahiz beste edozein goi-kargu foral.
- **Uko egitea** kasuan kasuko erabakietan zeharka nahiz zuzenean **parte hartzeari, interes-gatazkatzat jo litekeen edozein zirkunstantzia** detektatuz gero.
- Bermatzea zuzen betetzen dituztela beren funtzioak, **gardenki jokatzuz, interes publikoa eta herritar guztiena betetzea xede dutela**, zeina gauzatzen baita, besteak beste, jardueren nahiz ondasunen eta interesen aitopenetan.



- **Uko egitea beren kargu publikoaren ondorioz zuzenean nahiz zeharka eskura dezaketen zeinahi pribilegio onartzeari**, eta ez onartzea ezein opari-, hospitalitate- eta adeitasun-eskaintza (ez eta bakoitzaren ezkontideari, izatezko bikoteari, odol zein ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren graduako senideei edo interes partekatuak dituzten hirugarren batzuei egiten zaizkienak), baldin eta gizartean une bakoitzean ezartzen diren ohikoez haragokoak badira, horrela erakundearen irudia zaintzeko.

Zein egoeratan onar daiteke opari edo adeitasun bat?

Hainbat egoerak sor dezakete zalantza edo nahasmendua, hala nola opariak, hospitalitateak eta adeitasunak eskaintzean eta onartzean (esaterako, halakoak noiz ematen diren, haien balio ekonomikoa, eta abar).

Oro har, onar daitezke protokoloari dagozkion opari nahiz adeitasunak, baldin eta erakunde-harremanen esparruan egiten badira.

Zehazki esateko, ezin da opari nahiz adeitasunik onartu, baldin eta:

- *Eragina izateko asmoz edo behar ez den onura bat lortzeko asmoz egiten badira.*
- *Negozio jakin bat edo enpresa-abantaila bat lortzeko nahiz mantentzeko egiten badira (negozioaren testuinguruan ohiko diren zirkunstantzietatik harago).*
- *Ez badira eskaintzen edo ematen publikoki, agerian eta gardentasunez.*
- *Mesede-tratua eskuratzeko edo halakoen trukean egiten badira.*
- *Interes-gatazka bat sortzea ekar badezakete.*
- *Eskudiruzko opariak badira, edo opari-txartelak nahiz diru-eskualdaketa egiteko modua ematen duen beste edozein euskarri.*
- *Modua ematen badute pentsatzeko eragina izango dutela kontratuzko harreman batean.*
- *Xede pribatua besterik ez badute.*



Jardueren aitortpena eta Ondasunen eta interesen aitortpena

Jardueren aitortpena:

- *Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko 2018ko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, goi-kargu foralek egiten dituzten jarduera publiko zein pribatuen aitortpen bat aurkeztu behar dute Jardueren Erregistroan —zuzenean edo ordezkapen edo ahalorde bidez egiten dituzten jarduerena—. Aitortpen horretan orobat jasoko dira izendapenaren aurreko bi urteetan egindako jarduerak.*
- *Kargu publikoan jardun bitartean aurkeztu behar duten jardueren aitortpen horretan, kasu guzti-guztiak jaso beharko dira, bai jarduerak direla-eta ordainsaria edo konpentsazio ekonomikoa jasotzen denean, bai konpentsazio ekonomikorik jasotzen ez denean. Aitortu beharrekoak izango dira, beti, edozein jarduera publiko edo pribatutan zerbitzua, bertaratzeak eta bidaiia-sariak direla-eta jasotzen diren kalte-ordainak edo beste edozein konpentsazio ekonomiko.*

Ondasunen eta interesen aitortpena:

- *Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko 2018ko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauaren 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, kargu publiko foralek ondare-dukia duten ondasun, eskubide eta betebeharrak jasotzen dituen aitortpen bat aurkeztu behar dute, erregelamenduz zehazten den moduan, Ondasunen eta Interesen Erregistroan.*

Foru-arau horretan ezarritako Berme Organoari atxikita daude Jardueren Erregistroa eta Ondasunen eta Interesen Erregistroa, eta hark kudeatzen ditu.



Bizikidetasuna eta errespetua:



Funtzioak betetzean eta beren jarrera pertsonalean, bizikidetasuna, solidaritatea eta errespetua oinarritzat dituen qizarte bat sendotzea, beti errespetua, pluraltasuna eta pertsonen arteko solidaritatea sustatuz. Era berean, pertsona guztiek merezi duten kortesia, begirune eta duintasunaz tratatzea herritarrek, administrazioaren zerbitzuko langileak, zuzendariak eta beste edozein arduradun publiko.

Horrek esan nahi du pertsona guztiak tolerantziaz tratatu behar direla, eta ez dela izan behar mespretxuzko hitzik erabiltzea dakarren ezein jokabide nahiz jarduketarik, eta ez dela egin behar, halaber, ezelako diskriminaziorik.

Zer esan nahi du bizikidetasunaren eta errespetuaren printzipioan oinarrituriko jokabidea izateak? Zera...

- **Kortesiaz eta errespetuz** tratatzea pertsonak, bizikidetzaren egoki baterako oinarri gisa.
- **Hizkera eta manera egokiak** erabiltzea gainerakoekiko harremanetan (herritarrek, Administrazioaren zerbitzura diharduten langileak, zuzendaritzako langileak, gainerako kargu publikoak, bai eta beste edozein arduradun publiko), horrela errespetuan, kortesian, aditasunean enpatian nahiz baretasunean oinarrituriko harremanak eraikitzeko.
- **Bizikidetzaren egokiaren** etsenplu ematea eguneroko jokabidearen bitartez, horrela balio egokiak sustatzeko, hala nola tolerantzia, elkarrenganako errespetua, aniztasuna eta pertsonen arteko solidaritatea.
- **Jardunbide diskriminatzaileak** dakartzan jokabide edo jarduketa oro **saihestea**, edozein dela ere diskriminazioaren arrazoia (generoa, sinesmena, ideologia, arraza, sexu-orientazioa, desgaitasuna, adina, eta abar).
- **Jarrera irekia izatea aktiboki entzuteko** herritarrek eta beste erakunde nahiz entitate batzuek arlo hobetzeko egiten dituzten hobekuntza-proposamen eta -iradokizun guztiak.



5. Jokabide-gida: nola gauzatzen diren gobernamendu onaren printzipioak

Gobernamendu onaren printzipioak

Goi-kargu publiko foralek gobernamendu onaren printzipio hauetara gutxienez egokitu behar dute beren jarduna:

**LIDERGO PARTEKATUA ETA
BERRITZAILEA**



**GOBERNU
IREKIA**



**BIKAIN TASUN
PROFESIONALA**



**MODERNIZAZIOAREN KULTURA
SUSTATZEA**



**EFIZIENTZIA BALIABIDEEN
ERABILERAN**



**GESTIOAREN
ERANTZUKIZUNA**



**KOHESIO EKONOMIKO-SOZIALA ETA
LURRALDE-OREKA**





Lidergo partekatua eta berritzailea:



Lidergo partekatuan jardutea, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriekin eta gainerako erakundeekin lankidetzaren publiko-pribaturako eta instituzioen arteko lankidetzarako beharrezkoak diren sinergia guztiak sustatuz eta bultzatuz.

Politika eta kudeaketaren bat-egite egokia sustatzea, erakundeari ikuspegi estrategikoa ematea, eta erabakiak arrazoiturik hartzea, gobernu-programa gauzatzera motibatuz organiazioa.

Politika publikoak eta beren erakundeak etengabe egokitu eta eralda daitezkeen bultzatzea, beren helburuak eta egiturak Bizkaiko gizartearen beharretara egokitzeko.

Goi-kargu foralek Bizkaiko gizarteak eskatzen duen lidergo partekatu eta berritzailean jardungo dute, eta, horretarako, arlo pribatu eta publikoaren arteko zein instituzioen arteko lankidetzaren sinergiak sustatuko dituzte, politika publiko eta erakundearen egokitze etengabea sustatuko dute, eta politika eta kudeaketa ahalik eta hobekien lerrokatzea bultzatuko dute.


Zer esan nahi du gure jokabideak lidergo partekatu eta berritzailearen printzipioa izatea oinarri?

- Eraldaketaren aldeko apustua egitea, **administrazioaren kudeaketa eta arreta hobetzeko, eta Bizkaiko herritarrei zerbitzu publikoak ematean bikaintasuna lortzeko**, pertsonen benetako premiei erantzuten dieten zerbitzuak baitira horiek.
- **Lankidetzaren publiko-pribatuko** ekintzak bultzatzea politika publikoak diseinatu eta prestatzean, bai eta politika horien kudeaketan ere.
- **Instituzioen arteko lankidetzaren** sustatzea, bai udalerriekin bai Bizkaiko Lurralde Historikoko gainerako entitateekin.
- **Partenoplastiak sustatzea xede publikoaren helburu**, eta, horretarako, ekintza publiko-pribatuak eta instituzioen artekoak bultzatzea politika publikoak diseinatu eta prestatzeko.



- **Politika eta kudeaketaren arteko bat-egite egokia zaintzea**, aukera emango duena erakundea egoera aldakorretarako prestatu eta arinago, efizienteago eta modu berritzaileagoan erantzuteko, eta, era berean, barneko talentuak herritarren beharrei erantzuten diela ziurtatzeko.

Gobernu irekia:



Herritarrei jarduera publiko guztiei buruzko informazioa emanqo dien gobernu ireki baten esparruan onartzea, sustatzea, betearaztea, erabakitzea eta ebaluatzea beren politikak.

Open Government delakoari esker, gobernu berri baterako bidea egin dezakegu. Gobernu berri horrek aukera ematen du zerbitzuak herritarrekin eta herritarrentzako diseinatzeko, herritarrek parte hartzeko bide gardenak bultzatuz eta kudeaketaren kontu emanez, eta, horrela, herritarren eta gobernuaren arteko erantzunkidetasuna sustatzen du.

Ezagutza ireki eta banatua sortzea izango da goi-kargu foralen jardueren gidari, eta gardentasuna eta datuen irekiera egingo dituzte beren funtsezko konpromiso.

Gardentasunaren ikuspegitik, goi-kargu foralek Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren eta gainerako foru-erakundeen gardentasuna indartzea bultzatuko dute, publizitate aktiboko neurri espezifikoekin eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen bitartez. Horrela, laguntzen da herritarrek foru-erakundeetan duten konfiantza sendotzen eta hobetzen, beren prozesuetan gardentasun-printzipioa txertatzen, eta Bizkaian gardentasun-kultura baterantz aurrera egiten da.

Indarrean dagoen araudiaren arabera herritarrei informazio publiko garrantzitsua edo eskaturikoa emateak, azken batean, Foru Aldundiaren eta foru-erakundeen legitimitate instituzionala indartzen laguntzen du.

Bestalde, datu publikoak Open Dataren irizpide eta betekizunen arabera irekiz, datu horiek hobeto aprobetxatzea lortu nahi da hirugarren batzuek datuok erabiltzean balio ekonomiko eta soziala sortuz, barne-eraginkortasuna hobetzeko palanka gisa jokatzea eta gardentasun-ereduaren iraunkortasuna erraztea, informazioa hobeto bistaratzen eta ulertzen lagunduz.



Zer portaerak bermatzen dute gobernu irekiaren printzipioan oinarrituriko jokabidea izatea?

- **Gardentasun-printzipioaren** arabera jardutea funtzio publikoak betetzean eta erabakiak hartzeko prozesuetan, betiere herritarren oinarrizko eskubideak errespetatuz (batez ere datu pertsonalak babesteko eskubidea), legeak ezartzen duen esparruan.
- **Publikotasun aktiboa** bermatzea, eta, beraz, erakunde-, antolamendu- eta plangintza-informazioa ematea, eta halaber plazaratzea, besteak beste, garrantzizko informazio juridiko-normatiboa, ekonomiko-finantzarioa eta ondareari buruzkoa, kontratazioari eta dirulaguntzen esleipenari dagokiona.
- Beharrezko diren bitartekoak jartzea herritarren esku bermatzeko **azkar eta erraz eskura daitekeela intereseko informazio publikoa**, eskuratu, berrerabili edo parteka daitezkeen formatuetan, eta eskura dituen neurriak hartzea informazio publikorako sarbidearen irisgarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko bere eskumeneko esparruetan.
- **Garaiz erantzutea, Gardentasunari buruzko Foru Arauarekin bat.**
- **Datuen egiazko irekiera** bultzatzea, une oro errespetatuz datu pertsonalak babesteko eskubidea eta pertsonaren oinarrizko eskubideak.
- **Administrazio harkor eta sinplifikatu** bat taxutzeko lan egitea, hizkera erraz eta ulerkorra duen administrazio baten alde, irakurketa errazaren estandarrak aintzat hartuz.
- **Parte-hartzea eta kontu-arrazoia ematea** sustatzea.



Gardentasuna gestio publikoan

Publikotasun aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Aukera ematen die herritarrei Administrazioaren kudeaketari buruzko alderdi aurreratuak ezagutzeko, eta, hala, zerbitzu edo programa horren kalitatea, eraginkortasuna, efizientzia eta eragina ebaluatu ahal izango ditu.

Zehazkiago, pertsona fisiko eta juridiko guztiek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Informazio publikoa Administrazio Publikoak duen edozein eduki edo dokumentu da, euskarria edo formatua edozein dela ere, administrazio horrek bere eginkizunen barruan egin edo eskuratu duena.

Oro har, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea indarrean dagoen arautegian identifikatutakoan kasuetako bat ematen denean ukatu ahal izango da. Edonola ere, berariaz zehaztu beharko dira informazioa ukatzeko arrazoiak, arautegi horretan jasota dauden mugak aplikatzearen ondorioz edo informazio-eskaerak ez onartzeko arrazoiak aplikatzearen ondorioz ukatzen denean, baita datu pertsonalak tartean sartzen direlako ukatzen denean ere, datuen babesaren inguruko legeriarekin bat etorrita.

Informazio publikoa argitaratzeko, pertsona fisikoei eragiten dienean, errespetatu egin behar da datu pertsonalen babesari, ohorerako eskubideari, intimitaterako eskubideari eta norberaren irudiari buruz indarrean dagoen legeria.

Datu irekiak: Aukera ematen die herritarrei Administrazioak kudeaketako elementu gisa duen informazioa eskuratzeko, eta informazio horrek, herritarrei modu irekian eskainirik, balio ekonomikoa eta/edo soziala

Bikaintasun profesionala:



Eginkizunak ahalik eta profesionaltasun handienaz betetzea, etengabeko hobekuntza lortu nahian, eta, beren eskumen profesionalen garapenaren bidez, herritarrei kalitateko zerbitzuak emateko bikaintasun-xedea lortzen saiatuz.

Goi-kargu foralek beren profil profesionala etengabe hobetzeko joera izango dute, bermatzeko ahalik eta ondoen beteko dituztela beren funtzioak eta bikaintasunez emango zaizkiela zerbitzuak Bizkaiko herritarrei.

Zer esan nahi du bikaintasun profesionalaren printzipioan oinarriturik jarduteak?

- Bermatzea badituztela esleitu zaizkien funtzioak behar bezala betetzeko **gaitasun profesional egokiak**.



- **Etengabeko prestakuntzaren aldeko jarrera proiektiboa izatea**, bere gain hartuz sakontze-maila handiagoa eskatzen duten ezagutza eta kompetentzia profesionalak garatzeko betebeharra eta konpromisoa, eta, era berean, erakundeko gainerako langileen artean etengabeko prestakuntzaren garrantzia sustatuz.
- Erreferentziazko erakundeek garatutako **jardunbide egokiak eta ekimenak etengabe aztertze**ko jarrera irekia izatea, beren kudeaketa hobetzen eta ematen diren zerbitzuen kalitatea hobetzen laguntzeko.
- Erabakiak irizpide objektiboetan oinarritzea, langile adituen **ezagutza tekniko** **baliatuz**, beharrezkoa denean.



Modernizazioaren kultura sustatzea:



Berrikuntza eta modernizazioaren kulturaren qarapena sustatzea zeinek bere erakundean, eta bereziki zaintzea enplegatu publikoak gizarteak dituen eskakizun berrietara egokitu daitezela eta antolakunde-kultura alda dadila.

Etorkizuneko erakundeek organizazio arin, sinplifikatu, lau eta teknologian oinarrituetarantz eboluzionatzen jakin beharko dute, eta herritarren beharrei eraginkortasunez erantzungo dieten zerbitzu publiko berritzaileak garatuko dituzten organizazio bihurtuko dira, balio publikoaren kontzeptu berri bat eskainiz.

Testuinguru horretan, goi-kargu foralek zalantzarik gabe jo beharko dute sistema publikoa etengabe berritzera, eta apustu egingo dute zeharkakotasunaren, desburokratizazioaren, teknologia berrien eta berrikuntzaren alde, erakundeak modernizatzeko kultura berri bat sustatzeko helburuarekin.

Zer esan nahi du modernizazioaren kultura sustatzeak?

- Apustu egitea **eraldaketa digitalaren alde**, bai erakundean bertan eta bai lurralde osoan (pertsonek, toki-erakundeak eta enpresak), eta herritarrek erdigunean jartzea gizaritearen erronkei erantzuteko.
- Administrazioak, herritarrek, enpresa-sareak eta ezagutza zein berrikuntza sortzen duten erakundeek osatzen duten **ekosistemaren bideratzaile (edo traktore) izatea**, balio erantsi handiagoko zerbitzuak eskaintzeko.
- **Kargak murriztu eta administrazio-prozedurak eta -izapideak sinplifika eta minimiza daitezzen** bultzatzea, zerbitzuak ematean eraginkortasuna bermatzeko.
- Apustu egitea **antolamendu-eredu berriak** garatzearen alde, egitura arinago, malguago eta transbertsalagoetan oinarriturik, etorkizuneko erronketara eta aldaketetara azkar egokitu eta halakoetan bizkor erreakzionatu ahal izateko.
- **Teknologia palanka dinamizatzaile eta erraztailea** dela uste izatea.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakundearen sailarteko ekimen, proiektu eta jarduerak berritzaile bultzatzea, **kudeaketa-eredu moderno eta berritzailea izango duen administrazio bat** lortzeko, zerbitzu publikoak etengabe hobetzeko sistemak izango dituenak.



- Erakundeak eta langileak **etengabe berritzeko eta egokitzeko kulturaren** garapena sustatzea, gizartearen erronka eta eskaera berriei erantzuteko.

Efizientzia baliabideen erabileran:



Baliabide publiko guztiak efikazia-, efizientzia- eta ekonomia-printzipioekin bat erabiltzea.

Beren erantzukizun publikoetarako bakar-bakarrik erabiliko dituzten goi-kargu foralek haien esku jartzen diren bitarteko eta baliabide publikoak.

Efizientzia-irizpideei jarraituz egingo dira baliabide publikoen kudeaketa eta ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa; kudeaketok optimizatzen bideratuko dira jarduerak eta erabakiak, eta ez alferrik xahutuko ezein ondasun eta baliabide publiko.

Zer esan nahi du baliabideen erabileran efizientzia sustatzeak?

- **Baliabideak efizientziaz eta arduraz kudeatzea** (baliabide urriak lehenestea eta optimizatzea), mota guztietako xahutzeak edo justifikaziorik gabeko erabilerak saihestuz).

- Baliabide publikoak babestea, kontserbatzea eta behar bezala kudeatzea, eskura jartzen zaien **edozein bitarteko eta baliabide publiko** interes publikokoak eta Bizkaiko herritarrenak ez diren **premiak asetzeko erabiltzea saihestuz.**

- **Etengabeko berrikuntza- eta hobekuntza-prozesuak** bultzatzea beti, aurrezpen eraginkorrak identifikatzeko.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakundearen iraunkortasuna bermatzea politika publikoen diseinuan eta kudeaketan, bai eta beren jardunean erabakiak hartzen dituztenean ere.

Zer dira bitarteko eta baliabide publikoak?

Bitarteko eta baliabide publikoak dira, baliabide ekonomikoez gainera:

- instalazio ofizialak eta erakunde-bulegoak
- bulego-materiala
- makineria eta ibilgailuak
- gailu mugikorak, ordenagailuak eta edozein osagai teknologiko, hala nola fotokopiagailuak, softwarea, internet, intraneta eta posta elektronikoko korporatiboa
- beste aktibo publiko batzuk



- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta toki-erakundeen nahiz foru-erakundeen artean sor daitezkeen **sinergiak aprobetxatzea**, proiektuen eskalagarritasuna sustatuz.

Gestioaren erantzukizuna:



Egin duten gestioaren erantzule izatea, eta hartutako erabakien zerqatia azaltzea.

Beren funtzioak betetzean erantzukizun osoz jokatzeari izango du helburu goi-kargu bakoitzak, eta une oro izango dira beren erabakien erantzule. Horrek berekin dakar aldian-aldian kontu-arrazoia ematea herritarren aurrean, beren erabaki eta jarduketara estrategikoak azaltzea, eta haien ondorioak beren gain hartzea.

Kontu-arrazoia ematea eta eginiko gestioaren erantzukizuna norbere gain hartzea funtsezkoak dira herritarrek instituzioengan eta goi-kargu foralengan duten konfiantza eta onartzen dieten sinesgarritasuna sendotzeko.

Zer dakar berekin gestioaren erantzukizunaren printzipioan oinarrituriko jokabide batek?

- Dagozkion funtzioak diligentziaz eta arduraz betetzea, une oro **bere gain hartuz goi-karguaren kudeaketatik eratortzen diren erantzukizunak eta ondorioak**.
- Harturiko erabakien eta egindako ekintzen **kontu ematea**, bai eta harturiko konpromisoenak ere.
- Beharrezko bitartekoak ezartzea **herritarrek informazioa eskura dezaketela bermatzeko**, errazago gerta dadin aldian-aldian jarraipena egitea goi-kargu bakoitzaren erantzukizunpean egiten diren jardueri.



Kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde-oreka:



Beren funtzioak betetzean, kohesio sozial eta ekonomikoa sustatzea, bai eta Bizkaiko eskualdeen arteko lurralde-oreka ere, esparruotan erakunde lokalekiko lankidetzaz bultzatuz.

Ekonomiaren arloan, goi-kargu foral honako xede hauek iristeko jardungo dute: enpresa-sarea indartzea, kultura ekintzailea garatzea, berrikuntza eta lehiakortasuna hobetzea, talentua eta ezagutza sortzea eta erakartzea, eta zuzendaritza-organoetan emakume gehiago egon dadin sustatzea.

Gizarte-arloan, desberdinkeria sozialak desagerraraztearen eta gizarte-bazterkeria saihestearen aldeko apustua egingo da, pertsona behartsuenei eta haien familiei lagunduz.

Lurraldeari dagokionez, azpiegituren garapena eta sareko lana sustatuko dira, lurralde barneko oreka eta kohesioa bermatzeko.

Zer portaerak bermatzen dute kohesio ekonomiko-sozialaren eta lurralde-orekaren printzipioan oinarrituriko jokabidea izatea?

- Goi-kargu foral bakoitzari dagokion erantzukizun-esparrutik abiatuta, **aberastasuna, ezagutza eta enplegua modu jasangarrian sortzea** eta lurraldean enpresen lehiakortasuna hobetzea sustatzen duten ekimenak bultzatzea.
- Lizitazio publikoko eta dirulaguntzetako prozesuetan **klausula sozialak eta ingurumenekoak** txertatzen direla bermatzea.
- Goi-kargu foral bakoitzaren eginkizun publikoa betetzean, **Bizkaiko herritarren kohesio soziala eta ongizatea** sustatzen duten jarduerak bultzatzea. Horretarako, desberdinkeria sozialak apurka-apurka murriztera eta gizarte-bazterkeria saihestera bideratutako ekintzak sustatzea, pertsonen arreta osoa ematea eta gizartearen interesak zaintzea, arreta berezia jarriz gizarte-eragileengan eta egoera txarretan nahiz gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenengan.
- **Eskualde- eta lurralde-garapen orekatua** sustatzen duten jarduerak garatzea, goi-kargu foral bakoitzaren funtzioak betetzean, eta sareko lana bultzatzea eta lurraldean gobernantza indartzea, horrela zerbitzu publikoen kalitatea bermatzeko eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzeko.



6. Jokabide-gida: nola gauzatzen diren herritarrekiko harremanetarako printzipioak

Herritarrekiko harremanetarako printzipioak

Goi-kargu foralek pertsonen duintasuna errespetatzeko printzipioaren arabera jardun beharko dute, bai eta jarraian jasotzen diren gainerako printzipio hauen arabera ere:

TRATU ADEITSUA ETA EGOKIA



BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA



HERRITARREN PARTE-HARTZEA



HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK



INGURUMENA ETA KULTURA-ONDAREA



Tratu adeitsua eta egokia:



Zuzentasun handiz tratatzea harremanetan jartzen den edozein pertsona (herritarrak, hornitzaileak, erakundeak ...) eta ez sartzea oposizioko edozein pertsonaren bizitza pribatuan.

Printzipio horren helburua da errespetuan, bizikidetzan eta pertsonen arteko elkartasunean oinarritutako gizartea sustatzea, goi-kargu foralen eta haien erantzukizunpekoen nahiz haien taldeko kideen jokabide publiko eta pribatuaren bidez. Era berean, goi-kargu foralak eredu izan behar dute tratu adeitsua izanez oposizioko kideekin, eta tolerantzian oinarritutako harremanak erraztu eta haien bizitza pribatuetan inola ere ez sartu.



Zer esan nahi du tratu adeitsua eta egokia izateak?

- Pertsonen arteko errespetua, tolerantzia eta elkartasuna sustatzea, **egiazko bizikidetzaren** oinarri gisa, beste pertsonak begirunerik gabe tratatzea saihestuz, bai maila pertsonalean, bai beren funtzio publikoak betetzean.
- Herritarrak eta enplegatu publikoak une oro eta edonon **arretaz, egokiro eta behar bezalako kortesiaz** tratatzea, eta hizkera eta manera egokiak erabiltzea, errespetuan oinarritutako harremana bermatzeko.
- Bere eginkizun publikoa betetzean, **herritarrei zerbitzu publikoak ematean arreta egokia eta kalitatezkoa** bermatzea, eta ez izatea diskriminazioen bat eragin dezakeen edozein jokabide edo jarduera.
- Etsenplu ematea, bere jokabidearekin, **oposizioko pertsonekin tratu egokia eta enpatikoa** izateaz, haien bizitza pribatuan sartzea izan daitekeen edozein ekintza edo komentario saihestuz.

Berdintasuna eta diskriminaziorik eza:



Genero-berdintasuna sustatzera, eta berdinean tratatzea pertsona guztiak, haiek diskriminatzea saihestuz.

Goi-kargu foralek, beren funtzioak betetzean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatuko dute, eta diskriminazio oro saihesteko lan egingo dute. Era berean, pertsonen berdintasuna sustatuko dute era guztietako desberdintasunen gaineratik, eta apustu egingo gizarte-kohesioaren, bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketa egokiaren alde.

Zer esan nahi du berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeak?

- **Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta egiazkoa** bermatzea, ezarritako lege-esparru eta planen bidez (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, Berdintasunerako Foru Planak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta beste batzuk), eta tratu- eta aukera-berdintasunaren, genero-ikuspegiaren integrazioaren eta gizonen eta emakumeen ordezkariaren printzipioak jarraituz.



- Gizonen eta emakumeen arteko **berdintasuna bermatzen lagunduko duten politikak** garatzea, gizartea eraldatuz eta pertsona guztien eskubideak bermatuz.
- Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-erakundeetan **kultura-aldaketa** sustatzea, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna haien baitan dagoela bermatzea.
- Beren erantzukizunetan dihardutela, **pertsona guztientzako eskubide guztiak** bermatzea, alde batera utzita jatorria, adina, sexua, gaitasuna, sexu-orientazioa edo erlijioa, eta genero-ikuspegia aintzat hartzea beren funtzioak betetzean.
- **Aniztasuna kudeatzeko politika** sustatzea, diskriminaziorik eza ardatz hartuta, eta desberdintasun mota guztiei nahiz Bizkaiko herritarren eskubideei kontu eginez.
- Litzitazio publikoko eta dirulaguntzetako prozesuetan, berdintasunaren arloko **klausula sozialak** txertatzen direla bermatzea.

Herritarren parte-hartzea:



Herritarrek politika publikoen diseinuan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzen duten sustatzea.

Goi-kargu foralek harreman-gobernu bat bultzatuko dute, erantzunkidetasunean oinarrituriko herritarren parte-hartzea sustatuz (alegia, herritarrak politika publikoen zikloan integratzea).

Zer portaerak bermatzen dute herritarrek egiaz parte hartzen dutela politika publikoen diseinuan eta erabakiak hartzeko prozesuetan?

- Beren eginkizunen esparruan, **herritarren partaidetzarako ekimenak, tresnak eta bideak** sustatzea, gestioa hobetzeko.
- Laguntzea, haiei dagokien arlotik, **erakunde dinamikoago eta bideratzaileago baterantz** aurrera egiten.
- Herritarren ordezkariak zabala bermatuko duten **languneen** garapena bultzatzea, gizartearen aniztasunaren eta aberastasunaren erakusgarri.



- **Hizkera eta metodologia egokitzea**, askotariko profilen parte-hartzea bermatzeko.

Hizkuntza-eskubideak



Pertsonen hizkuntza-eskubideen erabilera bermatzea, kontu eginez bereziki euskararen normalizazioa bultzatzeari eta euskararen erabilera sustatuz.

Goi-kargu foralek, beren erantzukizunen esparruan, aktiboki bultzatuko dute euskararen erabilera Bizkaiko gizartearen hizkuntza-eskubideak bermatzeko; batez ere, Foru Aldundiarekiko eta foru-erakundeekiko harremanetan. Era berean, euskararen erabilera sustatuko dute, bai Foru Aldundiaren barruan, bai erakundeen artean.

Euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzeak, hala, gizarte-kohesioa eta hizkuntza-bizikidetzak bultzatuko dituen ingurune bat sustatzen laguntzen du.

Zehazki, zer esan nahi du hizkuntza-eskubideen erabilera bermatzeak?

- Herritarren **hizkuntza-eskubideak** bermatzea, euskararen presentzia eta erabilera sustatuz jarduera eta ekitaldi publiko guztietan eta herritarrekiko harremanetarako gune eta zerbitzu guztietan.
- **Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea**, bai eta euskara normalizatzearen eta biziberritzearen aldeko jarrerak ere.
- Euskararen erabilera sustatzea, **bi hizkuntza ofizialak integratuz** Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakundeen **barne-kudeaketan**.
- Aktiboki sustatzea **euskararen erabilera erakundeen arteko eta erakunde pribatuekiko harremanetan**.
- Hizkuntza dela-eta **diskriminazioa** sustatzen duen portaera oro **saihestea**.



Ingurumena eta kultura-ondarea:



Kultura-ondarearen eta ingurumenaren babesa bultzatzea, beren eskumenen barruan.

Goi-kargu foralek, beren funtzioak eta erantzukizunak betetzean, kontuan hartuko dute ingurumenaren babesa eta haren aldeko portaera izango dute. Era berean, goi-kargu foralek Bizkaiko kultura-ondarea egoki kontserbatzen dela begiratuko dute beren jarduketetan.

Zer esan nahi du ingurumenaren eta kultura-ondarearen babesa bultzatzeak?

- Bizkaiko **kultura-ondarea behar bezala kontserbatzeko** jarduerak eta portaerak sustatzea, eta ondare hori babesteko laguntzak ematea.
- Goi-kargu bakoitzaren jardun-esparruan, kultura-ondarearen eta haren gizarte-balioaren balioa nabarmentzeko eta haren zabalkundea sustatzeko abian jartzen diren **gizarte- eta hezkuntza-arloko jarduketak eta jarduerak** babestea.
- **Ingurumen-iraunkortasuna erakundearen zeharkako helburutzat hartzea**, erantzukizun-, politika- eta ekintza-arlo bakoitzetik Bizkaia orekatu eta jasangarri bat lortzen lagunduz.
- **Baliabideen erabileran eraginkortasuna eta iraunkortasuna** sustatzen duten ekintzak bultzatzea.



7. Jokabide-gidak gizartekotzea eta zabaltzea

Bizkaiko Foru Aldundia konprometitzen da jokabide-gida hauen berri zabaltzera. Honela:

- Foru Aldundiko eta foru-erakundeetako goi-karguek ale bat jasoko dute izendatuak izatean eta gidan aldaketak egiten direnean.
- Era berean, ale bana emango zaie jardunean dauden goi-kargu foralei.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren atarian argitaratuko dira jokabide-gidak, *Bizkaia Gardena* delakoan.

Gida hauek orientagarriak dira, deskribapenak eta adibideak ematen dituzte, eta hainbat gidalerro jasotzen dituzte errazago bete ditzaten goi-karguek Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Arauan definitzen diren printzipioak, etikari eta gobernamentu onari lotuak. Ulertzen da ezen goi-kargu izanik erantzukizun publikoak hartzen dituztenek borondatez egiten dituztela bere gida hauetan jasotzen diren portaerak eta jokabide-jarraibideak. Gida hauetan definitutako printzipioak interpretatzean zalantzarik izanez gero, berme-organoak erantzun eta ebatziko ditu planteatzen zaizkion kontsultak.

Ilido horretan, eta jokabide-gidak egiaz erabil daitezen sustatzeko, aurreikusita dago goi-kargu foral bakoitzak bere Etika eta Gobernu Onaren Konpromisoa sinatzea, gida hauetan definitutako printzipioak oinarri hartuta.



I. eranskina: Glosarioa

Ezagutu beharreko terminoak

Gobernamendu ona: kontzeptu zabala da gobernamendu ona, eta etika publikoaren kontzeptutik aterea da. Labur esateko, goi-kargu foralen jarduera gidatu behar duten printzipio, balio, arau eta praktika onen sorta batez osatzen da, administrazioak gardentasunez eta etika publikoari jarraikiz funtziona dezan, herritarren ongizatea bermatzeko.

Bateraezintasuna: erakundearentzat egiten denaz gainera, ea baden edo ez den aukerarik beste jarduera profesional publiko edo pribatu bat egiteko.

Kargu publiko foralek Interes-gatazkei eta Bateraezintasunei buruzko 5/2018 Foru Arauan ezarritako mugak eta bateraezintasunak izango dituzte. Oro har, eta foru-arau horretan adierazitako salbuespenak alde batera utzita, kargu-publiko foralek nahitaezkoa izango dute dedikazio eskusiboz aritzea beti.

Interes-gatazka: Interes-gatazkei eta Bateraezintasunei buruzko Foru Arauaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, eginkizunak eta ardurak betetzean, goi-kargu foralek objektibotasun- eta inpartzialtasun-printzipioekin bat bideratuko dituzte beren jokabideak eta jarduketak, eta interes orokorraren alde egingo dute beti.

Interes-gatazka izango da goi-kargu foralek interes jakin batzuk batzen diren gaien buruzko erabakietan parte hartu behar dutenean, jardunez zein omisioz. Interes horiek, hain zuzen, hauek dira: batetik, interes orokorra edo pertsona horien eginkizunari esleitutako interes publikoa eta, bestetik, interes pertsonal propioak, hirugarren pertsona batzuekin partekatutakoak edo zuzeneko senideenak, beren jardunarekin edo omisioaren aurrez zuten asmoa lortzen ez badute ere.